

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### AGENDA 21eko Foroa

2009ko maiatzaren 28an egindako tailerraren akta

#### Gaiak:

- Tokiko Ekintza-planaren ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak.
- Gaztetxearekin eta Gazte-txokoarekin egindako lanaren xehetasunak eta emaitzak.
- "Albisteak"

Osteguna, 2009ko maiatzaren 28an  
Legazpin, 18:30etik 20:00etara

#### ● Tailerlean parte hartu dutenen aurkezpena

Batzuetan gertatzen ohi zaigunez, Agenda 21eko Foroaren tailerra motza egin zaigu. Motza, mahai gainean gaur genituen gaiak xehetasunez aztertzeko, komentatzeko eta eztabaidatzeko; gai interesgarriak, bestalde. Hauek dira gaiak:

- Legazpiko tokiko Ekintza-planaren ebaluazioaren emaitzak; ingurumenaren eta iraunkortasunaren alde lan egiteko herriak egiten duen ahalegina iraunkortasuneko adierazleen emaitzetan antzematen den edo ez ikustea.
- Miriam eta Saioa, "Garapen iraunkorra. Tokiko Agenda 21aren kudeatzailea" graduatu ondoko ikasleen esperientzia. Legazpiko Agenda 21eko sailaren laguntzarekin Gazte-txokoko eta Gaztetxeko gazteekin izan duten esperientzia.



Bi gai horiek osatu dute, bestelako albiste laburrekin batera, gaurko gai-zerrenda. Guztira, **23 pertsona elkartu gara**. Batzuk faltan bota ditugu baina zero garbiak eta eguzki distiratsuak beste gauza batzuk egiteko gonbitea luzatu dute; beraz,... seguru hurrengo tailerlean berriro elkar ikusiko dugula !



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Mila esker egunak joan, egunak etorri, gurekin izateagatik!

Bixente Garmendia (zinegotzia) ♦ Floren Gutierrez ♦ Manuel Fernandez (Nagusilan) ♦ Joxean Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ♦ Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) ♦ Montse Vallejo ♦ Isabel Vallejo (Olazabal institutua) ♦ Jose Luis Cid ♦ Iban Odriozola (Ilinti merkatarien elkarteko kidea) ♦ Ane Odriozola ♦ Arantza Lobo (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Isa Sanz (udaletxeko gazteria saileko teknikaria) ♦ Junkal Fernandez ♦ Javier Iraeta (GKN Driveline) ♦ Eneko Aseginolaza ♦ Arantxa Segurola (Haztegi ikastola) ♦ Eider Larrañaga (Minuartia-Enea) ♦ Saioa Alzua eta Miriam Orozko (gazteekin esperientzia burutu dutenak) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

### ● Hona hemen, banan-banan, aztertu ditugun gaiak

Ikus ditzagun jarraian, gaurko tailerrean landu ditugun gaien xehetasunak. Tokiko Ekintza-planaren eta iraunkortasun-adierazleen ebaluazioarekin hasiko gara!

#### 1. Tokiko Ekintza-planaren ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak.

Urtero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker, aholkularitza tekniko batek Tokiko Ekintza-planaren inplementazioaren bilakaeraren ebaluazioa egiten du. Berez, Tokiko Ekintza-planaren ekintza desberdinak nola ari diren burutzen eta zein neurritan betetzen ari diren aztertzen du.

Ebaluazio hori, Agenda 21eko Tokiko Ekintza-plana martxan duten Gipuzkoako udalerrri guztietan egiten da; horrela, 2008an 38 izan ziren parte hartu zuten udalerrriak.

**Legazpiri dagokionez, 2008-2014 epealdirako onartu den Tokiko 3. Ekintza-plana ebaluatu da.** Zeintzuk dira plana burutzean lehen urte honetan lortu diren emaitza nagusiak? Jarraian, ebaluazioa egiteaz arduratzen den Minuartia-Enea enpresako Mainerrek eskaini dizkigun azalpen garrantzitsuenak adieraziko ditugu:



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### 2008an Legazpin garatu den Tokiko Ekintza-planaren ebaluazioaren ondorio nagusiak:

- **2008an planean jasotako ekintzen betetze-egoera:** ekintzen %1 bukatuta dago; %10 oso aurreratuta; %55 hasita; eta %34 hasteko zain.  
Gai hori oso ondo baloratu da, lehenengo urtea izateko beteta dauden eta oso aurreratuta dauden ekintzak %11 direlako.
- **Inplementazio-maila lerro estrategikoka:** Tokiko ekintza-plana gaien arabera sailkatuta dauden lerro estrategikoetan dago egituratuta eta ordenatuta. Lerro horietatik, parte-hartzea, hezkuntza eta hirigintza iraunkorra arloak dira betetze-maila altuena dutenak (%25). Aitzitik, hauek dira betetze-maila baxuena duten arloak: bizi-kalitatea eta justizia soziala, kontsumoa eta ekoizpen iraunkorra eta Ingurunea eta biodibertsitatea.
- **Planeko hainbat ekintza berriro formulatzeko proposamena:** Planaren betetzea errazteko asmoarekin eta egin den ebaluazioaren ondorioz, aholkularitza teknikoak hainbat ekintzen izenak edo edukiak aldatzea proposatu du. Jaso egingo dugu! 2.1.9., 5.3.3., 5.4.5, 7.2.4. eta 7.3.1. ekintzak dira (horien xehetasunak ebaluazioaren txostenean jaso dira). Horrezaz gain, planean sartuko den ekintza berri bat identifikatu da (2.1.13. Espaloiak zabaltzea).
- **Barne-koordinazioko mekanismoak eta herritarren parte-hartzea:** Oso ondo baloratzen da udal mailako iraunkortasun batzordea egotea eta, bereziki, hileroko elkartzen den eta batez beste 27 parte-hartzaile dituen Foro hau izatea. Bikain!

Datu horiek eman ondoren, urrats bat gehiago emango dugu. **Edozein tokiko Ekintza-planaren helburua udalerrri iraunkorragoa lortzeko ahaleginak egitea denez, Legazpiren kasuan lortzen ari al gara hori?** Toki-iraunkortasunaren hainbat adierazle emango digute horren berri. Ikus ditzagun emaitzak ekintza burutzeko egiten ari den ahalegina eraginkorra den eta zein neurritan eragiten ari den ikusteko.


## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Zein da hainbat iraunkortasun-adierazleen bilakaera Legazpin?


- Etxeko ur-kontsumoa:** 😞 2008an Legazpin biztanle bakoitzak, batez beste, eguneko 117,2 litro gastatu ditu. Udalsarea 21eko udalerrien batez bestekotik behera gaude (biztanleko eta eguneko 120 litro), baina gure joerak gora egin du. Horregatik jarri diogu aurpegitxo horia.

Tendencia deseada: DISMINUCIÓN



- Etxeko argiaren eta gas naturalaren kontsumoak:** 😊 Behera egin du kontsumoak eta, gainera, Erkidegoko batez bestekoaren azpitik daude.

Tendencia deseada: DISMINUCIÓN



(hurrengo orrialdean jarraitzen du)

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Zein da hainbat iraunkortasun-adierazleen bilakaera Legazpin?

(aurreko orrialdetik dator)

- **Biztanle bakoitzak eguneko sortzen dituen hiri-hondakinak 😊** : Berdintsu mantentzen da; horrela, biztanleko eta eguneko 1,3 kilo hondakin sortzen dugu (Euskadiko Autonomia Erkidegoan biztanleko eta eguneko batez besteko 1,53 kilotik behera).
- **Hiri-hondakinak: birziklatzea eta gaikako zabor-bilketa 😊** : Legazpin gaikako zabor-bilketa egiten da eta bertan sortzen diren hondakinaren %28 inguru birziklatzen da (Euskadiko Autonomia Erkidegoan %29 da birziklatzen denaren portzentajea). Hala ere, urrun dago 2010. urterako Ingurumenaren Programa markoak ezarri duen helburua: birziklatzearen portzentajea %35 izatea.
- **Oinarrizko errentaren prestazioa jasotzen duten familien portzentajea.** Portzentaje hori 2008ko urte bukaeran %0,8an zegoen eta beheraka doala adierazten du. Hala ere horren interpretazioa korapilatsuagoa da. Zer baloratuko dugu? Dauden beharrak beteta daudela? Edo dauden beharren jokabidea eta joera?
- **Langabezia-tasa eta emakumezkoen langabezia-tasa: biek egin dute gora.** 2008ko urte bukaeran langabezia-tasa %7,4 zen eta emakumezkoen langabezia-tasa %10,1. Bilakaera hori egun jasaten ari garen finantza- eta ekonomia-krisiaren ondorioa dela aipatu da.
- **Herritarren parte-hartze bilerak 😊** : 2001ean sortu zenetik, Agenda 21eko Foroak gehitu egin du urtero egin ohi duen bilera-kopurua eta 2008an 10 lan-bilera egitera iritsi zen. Lorpen handia!

Orain arte esandakotik honako ondorioa atera dezakegu: hainbat alderditan iraunkortasuna lortzen ari dela sumatzen dela; modu berean, hainbat adierazlek lanean jarraitu behar dugula esaten digute, beraz,.... horretan saiatuko gara!

## 2. Gaztetxean eta Gazte-txokoan izandako esperientzia

Bigarren aztergaietan jaso dugun legez, gertutik ezagutu nahi izan dugu "Garapen iraunkorra. Tokiko Agenda 21aren kudeatzailea" Graduatu ondoko ikasle diren Miriamek eta Saiok landu duten esperientzia, hau da, Legazpiko Agenda 21eko sailaren laguntzarekin gazteekin izan duten esperientzia. Esperientzia horrek osatuko du haien graduatu ondoko azken proiektua.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Abiapuntua eta gazteekin burutu den lanaren helburuak:

- Udalak eta Foroak iraunkortasunaren gaia gazteekin lantzea lehentasunezkoa dela ulertu dute. Horrela jaso zen Tokiko Ekintza-planean: "8.4.1. Agenda 21eko III. Ekintza-planean gazteriaren parte hartzea eta inplikazioa bilatzea."
- Hortik abiatuta eta Udalaren laguntzarekin, Miriam eta Saioak **bi helburu nagusi** lortu nahi zituen proiektuari eman zioten forma:
  - **Legazpiko Udalaren eta herriko gazteen artean lankidetzarako aukerak sortzea.**
  - Ekintza eta esperientzia zehaztetik abiatuta, **gazteen artean jarrera eta ohitura iraunkorrak sustatzea.**
- Bi helburuak lortu ahal izateko, haien ahalegina bi talde handitan banatu zuten (adin desberdinen arabera, interesen arabera,... lanketa desberdina eskatzen zuelako).
  - **Gaztetxeko** gazteak.
  - Gazte-txokoko gaztetxoak (hauekin lan gutxiago egin dute eta ez dute gaia sakondu denbora eta baliabide gutxi izan dutelako).

Ikus dezagun labor-labor talde bakoitzarekin egindako lana eta lortutako emaitzak.

### Gaztetxeko gazteekin izandako esperientzia eta lortutako emaitzak:

- **Nola egin da lan?** Lan egiteko Gaztetxeak duen ohiko martxa ez eteteko, Saioa eta Miriam Gazte Asanbladako bileretan hartu dute parte eta, une oro, lan egiteko prest agertu dira gazteak.
- **Zein ekintza burutu dira?** Agenda 21 zer den eta Foroaren funtzionamendua nolakoa den, ..... azaldu ondoren, Gaztetxean burutzen diren ekintzak aztertu zituzten eta ingurumen- eta iraunkortasun-irizpideak zein ekintzetan lan daitezkeen aztertu zuten. Eta hortik abiatuta, gazteek honako erabakia hartu zuten: Legazpiko jaietan txosnetan eta Gaztetxeko tabernan berriz erabil daitezkeen edalontziak erabiltzea. Horretarako, udaletxearen eta bestelako erakundeen (Goieki, San Marcos mankomunitatea) laguntza jaso zuten baina ekintza burutzean erabat autonomoak izan ziren gazteak.

Gaur egun esperientzia hori ebaluatzen ari dira (diru-kontuak, zer atera zen ondo eta zer gaizki,...) eta berriz egiteko aukera aztertzen ari dira baina ekintza hobetuta.
- **Oro har, nola baloratu da esperientzia?** Saioak eta Miriamek garbi dute; esperientzia oso interesgarria eta aberatsa izan da eta hona hemen horretarako arrazoiak:
  - Gazteek proposamena ondo hartu dute eta lanerako prest agertu dira.
  - Etorkizunean, iraunkortasunaren gaia lantzen jarraitzeko ideia eta asmoa dute. Adibidez, Gaztetxean birziklatzea hobetzeko asmoa dute eta gai hori aztertzen ari dira (Sasietako Mankomunitateari edukiontzia eskatuko dizkiote, paperontzi desberdinak jarriko dituzte,...), mendiak garbitzeko lanetan parte hartzea ere interesgarria dela uste dute,...
  - Bestelako taldeekin eta erakundeekin (horien artean udala) lan egiteko aukera dagoela ikusi dute: baina, hori bai, era autonomoan funtzionatzen jarraitu nahi dutela eta nahiago dutela adierazi dute.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Gazte-txokoko gaztetxoekin izandako esperientzia eta lortutako emaitzak:

- **Nola egin da lan?** Kasu honetan, Gazte-txokoko dinamikan sartzeko bilerak egin dira ekipamenduko hezitzaileekin eta hori izan da haiekin harremanetan jartzeko modua.
- **Zein izan zen planteamendua eta zeintzuk izan dira emaitzak?** Lehen urratsa Gazte-txokoko ingurumen-ohiturak aztertzea izan zen; ondoren, gaztetxoekin lan zitezkeen bi gai aztertzea proposatu zitzaizen bertako hezitzaileei.
  - Gazte-txokoan sortzen diren hondakinak modu egokian kudeatzea bultzatzea eta hondakin horien birziklatzea sustatzea: horretarako garbiketako langileek "greba" egitea proposa daiteke.
  - Gazte-txokoan egiten diren jaietan berriz erabil daitezkeen ontziak eta edalontziak erabiltzea.

Garbiketako langileek "greba" egitea zaila ikusi du taldeak (ez da garbi ikusten nola egin hori); hala ere, berriz helduko zaio gaiari irailean (horrela baieztatu digu Isak, gazteria saileko teknikariak). Ontziak eta edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeari dagokionez, harrera ona izan duen ideia da.

- **Oro har, nola baloratu da esperientzia?** Poliki-poliki eta ekintza zehatzekin Gazte-txokoarekin lanean jarraitzea garrantzitsua dela erabaki dugu.

### 3. Albisteak!

Esperientzia interesgarri horren ondoren, tailerraren azkeneko 10-15 minutu "albisteak" azaltzeko erabili ditugu. Hau da, Foro honen bizitzan ere eragina duten gai zehatzen berri emateko erabili dugu azkeneko tartea. Laburtuz, hiru izan dira Inmak adierazi dizkigun gaiak:

- **Lan-proposamena Agenda 21eko Foroaren datozen tailerretarako.**

Gogora ekarri dugunaren arabera, urte hasieran Foroak Tokiko Ekintza-planaren ekintzetatik 2009. urtean zeintzuk landuko ziren aukeratu zituen. Ondorengo koadroan azaltzen den legez, ekintza gehienak hasita daude (grisez jarri direnak dira):

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

**3.1.1., 3.1.2 eta 3.1.3.** “JAKIN”: kontsumitzaileak jakin dezala. “NAHI”: kontsumitzaileak nahi izatea. “AHAL”: kontsumitzaileak ahal izatea.

- Jaietan ere iraunkortasunaren bila: Edalontzi berrerabilgarriak Gaztetxean + Gazte-txokoko ekintzak + uda ikastaroak + Korostiko erromeria.
- Produktu ekologikoak Ilinti elkartearekin: Aste Berderako loteak + ikastaroa urrian.
- Bidezko merkataritza sustatzeko erabakia + 2 ekintza.
- Eskolako Agenda 21: Ekitate falta.

**1.1.9.** Legazpiko basoen eta oihan-eremuen kudeaketa iraunkorragoa sustatzea.

- Legazpiko natura-ingurunearen inbentarioa.

**2.1.11.** Sentsibilizazio-ekintzak leku batetik bestera ibiltzeko ohiturak alda daitezzen.

- Foroa urtarrilaren 29an eta otsailaren 26an; gaia: bidegorria.
- Eskolara oinez, Haztegi eta Domingo Agirre ikastetxeekin.

**7.1.1.** Legazpiko merkataritza biziberritzeko Plana egitea.

- Metaplan.
- Foroa apirilaren 1ean.

**4.3.1.** Auzoak birgaitzea.

- Laubide auzoko kalea oinezkoentzat egokitzea.
- Legazpira sartzeko bide berria – Foroa martxoaren 26an.

**8.4.1.** Agenda 21eko III. Ekintza-planean gazteriaren parte hartzea eta inplikazioa bilatzea.

Jaietan edalontzi berrerabilgarriak + edukiontzia Gaztetxean eta Gazte-txokoan.

Beraz eta proiektu bakoitzean egindako ahaleginak aztertu ondoren, aurtengo azkeneko lauhilekoari begira (iraila-abendua) honako ekintzetan zentratuko gara: 1.1.9. ekintza, Legazpiko basoen eta oihan-eremuen kudeaketa iraunkorragoa sustatzea; eta horrezaz gain, auzoak birgaitzeko 4.3.1. proiektuan lantzeko proposamenak sakonduko ditugu.

Baina uda iritsi aurretik beste bilera bat egingo dugu ekainaren 18an. Tailer horretarako hasiera batean aztertzea aurreikusitako ez dugun gaia aztertzeko “baimena eskatu digu” Inmak: **klimatek aldaketa**. Izan ere, Udalak klima-aldaketaren aurka egiteko udal mailako ekintza-plana osatzeko konpromisoa hartu du eta eginkizun horretan parte-hartzaile egin nahi ditu herritarrak. Gai interesgarria eta aztertu beharrezkoa dela aintzat hartuta, gure baimena du Inmak. Beraz, badugu datorren bilerarako gaia!

- **Trena eta bizikletaren IV. jardunaldiaren eta 2009ko Aste Berdearen egitarauaren aurkezpena.**

Datorren igandean, maiatzaren 31n, aurreikusitako eguraldi onarekin IV. ospatuko da trena eta bizikletaren jardunaldia. Herritarrak jai horretan parte hartzea animatzeaz gain, horren gainean informazio gehiago jaso dezakegun helbidea jasotzen dugu:

<http://www.legazpiko-udala.info/web/eu/02berriakFitxa.asp?id=233>



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Bestalde, akta honi lotu zaion eranskinean aurtengo 2009ko Aste Berderako prestatu den egitarauaren berri eman da. Esan beharra dago Ibaialderen irteera hurrengo ekainaren 20an, larunbata, egitea proposatu dela. Edozelan ere, egun hori ekintza horretan parte hartuko dutenen artean erabakiko da. Parte hartu nahi duenak udaletxeko telefono zenbaki honetara deitu behar du: 943 73 70 30.

- **Garapen-lankidetzaren gaineko tailerra eta erakusketa**

Bakearen aldeko lankidetzako Asanbladak eta Legazpiko udaletxeko Gizarte Zerbitzuak antolatuta, datorren ekainaren 19an Garapen-lankidetzaren gaineko 2 orduko tailer bat eskainiko da Legazpiko Kultur Etxean. Egokitu diren bi saioetako batean parte hartu nahi duenak (11:30etik 13:30era edo 16:00etatik 1800etara) telefono-zenbaki honetan eman beharko du izena: 94 444 32 07.

Modu berean, datorren ekainaren 9tik 22ra "Zuzen-zuzenean zure begietara" izeneko erakusketa osatzen duten argazkiak eta testuak egongo dira ikusgai herriko Gizarte-zentroan.

- **Eta agur esaten dugu hurrengora arte!**

Esan dugun bezala, **hurrengo egun hori ekainaren 18a izango da; egun horretan klima-aldaketaren gaia izango dugu mahai gainean.** Ordura arte, eguraldi onaz goza dezazuela eta har ezazue parte Aste Berderako prestatu ditugun ekintzetan!

Mila esker eta izan ongi!



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



ingurumena.net

Gure esku dago  
está en nuestras manos

NAZIOARTEKO INGURUMEN EGUNA  
DÍA MUNDIAL DEL MEDIO AMBIENTE

### ASTE BERDEA 2009 - LEGAZPI

EGUNA	ORDUA	LEKUA	EKINTZA
Maiatzak 31	9:15	Euskal Herria plaza	<b>TRENA ETA BIZIKLETAREN IV. JARDUNALDIA.</b> Ingurumenarekin errespetagarriagoak diren garraio-sistemak erabiltzearen alde. - <i>Antolatzaileak: UGGASA eta Udalak. Laguntzaileak: LENBUR, RENFE, CIE Automotive, GKN Driveline eta Korosti, TelleriarTEKO Txirindulariak eta Goierri K.E elkarteak.</i>
Ekainaren 8tik ikasturtea bukatu arte			<b>ESKOLARA MILAZANGOAN!</b> : Herriko ikasleak eskolara oinez joan daitezela bultzatu nahi duen ekintza. Ekainean esperientzia pilotua burutuko da. Eta helburua datorren ikasturtean haurrak eskolara oinez joan daitezela da. - <i>Eskualde mailako ekintza. Antolatzaileak: UGGASA eta ikastetxeak.</i>
Ekainak 5	18:30	Legazpiko Udaletxeko Batzar Aretoa	<b>PRENTSAURREKOA eta Fokatu Urola Garaia argazki-lehiaketaren SARI BANAKETA.</b> Gaia: <b>Ekitate eza.</b> - <i>UGGASArekin batera antolatu den eskualde mailako ekintza. Laguntzaileak: IKATZA eta ARGAZKIA elkarteak</i>
Ekaineko larunbat bat, zehaztu gabe	10:00	Euskal Herria plazan elkartuko gara	<b>IBAIALDE:</b> ibaia bisitatuko dugu bere ekosistema aztertzeko: ingurunea eta uraren azterketa. Izen-ematea: <a href="http://www.legazpiko-udala.info">www.legazpiko-udala.info</a> edo 943 737030 telefono zenbakira deituz. - <i>Foroan proposatutako eta CEIDA Ingurugelarekin batera antolatutako sentsibilizazio-ekintza.</i>